


## Otsailak 2.

### HEZEGUNEEN MUNDUKO EGUNA:

### "Hezeguneek ura zaintzen dute"



HARITZALDE  
Naturzaleen Elkartea

Gaur goizean, **Haritzalde Naturzaleen Elkartea** antolaturik, **Sariako hezegunea auzolanean garbitzera** joan gara. Bertan **Haritzalde, Herrio eta Itsas Enara** elkarteetatik 12 lagun elkartu gara goizeko 10:00etan. **Usurbilgo Udalaren babes**a izan dugu eta harrera egitera 2 zinegotzi gerturatu zaizkigu. Haiek eskularruak eta zabor-poltsak eskuratu dizkigute eta gero bildutako hondakinak jasotzeko konpromisoa hartu dute.

**Zur eta lur geratu gara guztiak ikusita zenbat zabor zegoen, batez ere plastikozko botilak, lezkadian eta Oriaren ertzean. Lanean 2 ordu t'erdiz aritu gara euripean eta hektarea bat ere ez dugu garbitu!! (ezta futbol zelai bateko azalera).** Argazkietan ikus daitekeenez ikaragarria zen urak ekarritako, baina guk sorturiko zabor piloa. **Milaka eta milaka plastikozko botilak** mota guztietakoak, bidoiak, latak, pote eta tramankulu ezberdin, baloiak... **Jendea triste** eta baten bat etsita zegoen hain azalera gutxian, eta **Saria bezalako balio ekologiko handiko hezegunean, horrenbeste zarama ikusita.** Honek guztiak **kontzientzia har dezagun gogoeta beharra** erakusten du:

1. **Zaborra gehiegi sortzen dugu, batez ere plastiko gehiegi kontsumitzen dugu. Ebitatu plastikozko ontziak eta botilak. Ura iturritik, ez ontziraturikoa... eta birziklatu, birziklatu, BIRZIKLATU!!**
2. **Jendeak guk ikusitakoa ikusi beharko luke, seguru jarrera aldatuko luke eta. Sentsibilizazioa denon esku dago, eman eredia eta ez ixildu portaera zikinen aurrean. ZABALDU MEZUA!**
3. **Geratzen zaizkigun hezegune urriak oraindik arriskuan daude. Saria altxor bat da, Oriako herriko naturgunearen parte garrantzitsu bat... eta ezezaguna! Berreskuratu behar dugu Oria, BERRESKURATU BEHAR DUGU SARIA!!**
4. **Oriako estuariak Europa mailan babes du, baina geuk babesten eta zaintzen al dugu Oria, Motondo, Itzao, Saria... ZAIN DEZAGUN GURE ONDARE NATURALA!!** Zenbatu ezinezko balioa du, gure ondorengoek jaio aurretik maileguan utzitako ondasuna dugu!

**Eskerrik asko lagundu duzuen guztioi** eta ea denon artean daramagun norabidea aldatzeko gauza garen. **Apenas geratzen zaizkigu hezeguneak eta ditugunak ez daude egoerarik onenean.** Biodibertsitate altuko eremuak dira eta aurtengo leloak dioen bezala, **ura zaintzen dute. Zain dituzagun beraz, beraiek ere zain gaitzaten.**